


ELIZONDO ETXEA
D MAILA

AITA ORKOLAGA PASEALEKUA 6



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Hiru mailako eraikina, oinplanoa ia koadroa duena. Lau isuriko estalkia du eta dorre gisako errematea hegoaldeko kantoian. Hegalak nabarmentzen dira, baita azpaduretako, kantoietako eta behe oineko hego-mendebaldeko fatxadako harlanduzko elementuak ere.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ipar-mendebaldeko fatxadako hegal itxiak eta fatxada bereko behe oineko eranskinak.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

- * Jasodurak ez dira onartzen.
- * Estalkiko profila eta dorrearen zilueta errespetatuko dira.
- * Behe oinean dagoen eranskina kenduko da.